

NOLA ERABILI

8. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan bi atal nagusi bereizi ditugu.

NON -inesiboa-

03:43

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

ELEBERRIA

06:36

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Non dago? galderari erantzun. Laukoteek munduan diren eraikin, eskultura, mendi, hondartza edota ibai ezagunak hiztegi entziklopedikoan bilatu eta hamar aukeratuko dute. Ondoren, beste gelakideei galdetuko diete ea non dauden, banan-banan. Erantzun zuzen gehien ematen duen laukoteak irabazten du.

NORA -adlatiboa-

NORANTZ -hurbiltze-adlatiboa-

NORAINO -muga-adlatiboa-

NORAKO -adlatibo destinatiboa-

12:12

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

URRUTIKO INTXAURRAK HAMALAU

14:45

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Antzezleei geratutakoa inoiz gertatu zaien pentsatu; eta, gertatu bazaie, geratakariaren azalpena nola egin pentsatu ondoren, gelakideei esan.

Azkenean, publizitateak gaiak zenbat puzten dituen aztertu, denen artean.

OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

8. GELTOKIA

NON -*inesiboa*-

NON deklinabide-kasua lekua eta denbora adierazteko erabiltzen da.

Non? **Kalean. Kaleetan.**

Noiz? **Igandean. Igandeetan.**

Non izango da kantaldia? Kantaldia **parkean** izango da.

Noiz izango da kantaldia? Kantaldia **igandean** izango da.

Hala ere, bideo honetan lekua adierazten duten kasuak ikusiko ditugu. Denboraren adierazpena beste bideo batean ikusiko dugu. Esanahiari dagokionez, **NORENGAN** kasuaren baliokidea da, baina **NORENGAN** bizidunekin erabiltzen da eta **NON** bizigabeekin.

Bizigabeak: NON

Bizidunak: NORENGAN

NON kasua mugagabea bada, honela deklinatzen da:

MUGAGABEA -(e)tan / -(e)n

Hiru menditan egin du euria.
Hainbat paperetan utzi du arrastoa.
Anitz dendatan jarri dute argazkia.
Gasteizen bizi da Juan Joxe.

NON kasua mugatu singularra bada, deklinatzen da:

MUGATU SINGULARRA -(e)an

Mendian daude.
Paperean idatzita dago.
Dendan aurkitu ditut jakiak.

NON kasua mugatu plurala bada, deklinatzen da:

MUGATU PLURALA -etan

Gaur ez da giro euskal mendietan.
Zure paperetan zirriborro gehiegi dago.
Hiriko dendetan dena da garesti.

Non kasuko galdetzaileak hauexek dira:

NON-ZERTAN-ZEINETAN-ZEINTZUETAN-ZENBATE(T)AN

Non kasuko erakusleak hauexek:

HONETAN-HORRETAN-HARTAN-HAUETAN-HORIETAN-HAIETAN

Non kasuko leku-aditzondoak hauexek:

HEMEN-HOR-HAN

Nahikoa letra ikusi dugu dagoeneko. Ikus dezagun adibide txiki bat.

ELEBERRIA

Patxiri asko gustatzen zaio irakurtzea. Irakurri duen azken eleberria aurkeztu nahi digu.

PATXI Herri hau Luzpiano da, eta hau Luzpianoko plaza edo enparantza. Luzpiano herri txikia da. Bostehun eta hamar biztanle ditu. Zergatik gaude hemen Luzpianon?
Bada, hemen gaude etorri garelako. Lasai, txantxetan esan dut hori. Luzpianon gaude, "Bihotzeko maitea, zatoz nirekin" eleberria aurkezteko. "Bihotzeko maitea, zatoz nirekin" eleberriak hiru protagonista ditu. Bi pertsonak dira: mutila eta neska. Hirugarren protagonista iturria da. Mutila hor bizi da, etxe horretan.

Patxik seinalatu egiten du. Etxea ikusten dugu.

PATXI Neska hor bizi da, etxe horretan.

Patxik seinalatu egiten du. Etxea ikusten dugu.

PATXI Iturria han dago, kale barrenean.

Patxik seinalatu egiten du. Iturria ikusten dugu.

PATXI Mutilaren izena Gorka da eta neskarena Lide. Iturriarena, Iturriotz. Orain istorioa irakurriko dizuet.

Patxik liburua irekitzen du eta irakurtzen hasten da. Herria ikusten da.

PATXI Gaur goizean, zortzietan, egunero bezala, oilarrak abestu du.

Oilarraren kantua entzuten da.

Mutila ikusten dugu, oinez, eskuan pitxarra bat duela.

PATXI Gorka, egunero bezala, esnatu, aurpegia garbitu, jantzi eta iturrira abiatu da. Esku batean pitxarra bat darama. Pozik doa. Eguraldi ona egiten du. Ez bero, ez hotz.

Neska ikusten dugu, oinez, eskuan pitxarra bat daramala.

PATXI Lide ere, egunero bezala, esnatu, aurpegia garbitu, jantzi eta iturrira abiatu da. Lidek ere esku batean pitxarra bat darama. Pozik doa.

Mutila iturrian dago, ura hartzen. Neska iristen da. Mutilak begirada altxatzen du eta neskaren aurpegian finkatzen.

Neskak mutilaren begirada susmatu du eta, erdi lotsaturik, paparrekoa esku batez itxita, ura hartzera makurtzen da.

Mutilak so eta so neskari, liluratuta.

Neskak mutilari begiratzen dio.

Mutila gero eta liluratuago.

Neskak burua leunki altxatuta irribarrea eskaintzen dio mutilari.

Mutila arnasa hartu beharrean dago.

Neskak txolinduta begiratzen dio; baina, pixkanaka, barrea dator kio ora, eta, ezin eutsiz barrez lehertzen da. Mutilari gauza bera gertatzen zaio eta hura ere barrez lehertzen da.

Orduan, Patxi agertzen da eta kontuak eskatzen dizkie.

MIKEL Zer arraio gertatzen da! Zergatik egiten duzue barre? Ez al duzue gidoia irakurri? Maitemindu egiten zarete!!!

NESKA Bai, bai, gidoia irakurri dugu baina, begira, begira, zer itxura!

- MUTILA** Nire itxura diozu? Eta zurea?
- NESKA** Egia da. Aizu, Mikel, alborno hori eta bata hau benetan itsusiak dira. Nola demontre maiteminduko gara?
- MUTILA** Arrazoia dauka Mikelek. Pailazoak ematen dugu.
- MIKEL** Hain itsusiak al dira?

BERRIKUSTE AZKARRA

- Non dago dorre hori?
-Dorre hori Eiffel dorrea da eta Parisen dago.
- Non dago erloju hori?
-Erloju hori Big Ben deitzen da eta Londresen dago.
- Non dago eraikin hori?
-Eraikin hori Bilboko Arte Ederretako museoa da eta Bilbon dago.
- Non dago hondartza hori?
-Hondartza hori Kontxa deitzen da eta Donostian dago.
- Non dago plaza hori?
-Plaza hori Andre Mari Zuriaren plaza da eta Gasteizen dago.

Ohartu al zarete? Non galderak. -n marka eskatzen du erantzunean.

Hitzaren azken letra kontsonantea bada,
Parisssss, Londressss, Gasteizzzz,

-e letra jartzen da tartean:
Paris-e-n, Londres-e-n, Gasteiz-e-n.

Hitzaren azken letra bokala bada,
Bilbo, Donostia,

-n letra zuzen-zuzen eransten da:
Bilbon, Donostian.

NORA NORANTZ NORAINO NORAKO

NORA, NORANTZ, NORAINO, NORAKO. Adlatiboak dira hirurak.
NORA adlatiboa, NORANTZ hurbiltze adlatiboa, NORAINO muga
adlatiboa eta NORAKO adlatibo destinatiboa.

Esanahiari dagokionez, NORA, NORANTZ, eta NORAINO,
NORENGANA, NORENGANATZ eta NORENGANAINO kasuen baliokideak
dira; baina, NORENGANA, NORENGANATZ eta NORENGANAINO ez bezala,
NORA, NORANTZ, eta NORAINO bizigabeekin erabiltzen dira.

MIKEL Nerea iturrira doa.
MIKEL Nereak iturrirako bidea hartu du.
MIKEL Nerea iturrirantz doa.
MIKEL Nerea iturriraino iritsi da. §

NORAKO / NORENTZAT

Bi kasu hauek ere nahikoa antzekoak dira. Ikus dezagun zertan bereizten
diren: NORENTZAT, NOREN kasutik dator. Jabetza adierazten du, beraz eta
eskuarki bizidunekin erabiltzen da. NORAKO kasuaren azpian NON kasua
dago. Lekua adierazten du, beraz.

MIKEL Bolaluma hauek zuentzat dira.
NEREA Guretzat? Zer dela eta?
MIKEL Aurrezki-kutxan egon naiz eta hiru boligrafo eman didate.
OIHANE Eskerrik asko, Mikel, fakultaterako primeran etorriko zait.
NEREA Niri ere bai. Guk ere badaukagu opari bat zuretzat, Mikel.
MIKEL A bai? Ez dizut sinesten.
NEREA Amantal hau zuretzat, sukalderako.

Boligrafoak zuentzat.
Boligrafoak fakultaterako.
Amantala zuretzat
Amantala sukalderako

URRUTIKO INTXAURRAK HAMALAU

1.- PARKEA

Oihane, poltsa sorbaldatik zintzilik duela, egunkaria irakurtzen doa, oinez. Parkeko banku batean esertzen da. Bat-batean, zerbaitek, bere arreta erakartzen du. Urduri jartzen da. Sakelako telefonoa bilatzen du poltsa barruan. Zenbakia markatzen du eta belarrian jartzen du. Beste aldean erantzungailu automatikoak erantzuten du.

ERANTZUNGAILUA

Kaixo, laztana, oraingoan ez duzu asmatu. Kalera joan naiz, horregatik ez nago etxean; saiatu geroxeago edo utzi mezua, seinalea entzun eta gero.

OIHANE

Nerea! Nerea! Badakit etxean zaudela. Hartu telefonoa, ez izan tuntuna.

2.- NEREAREN ETXEA

Esku batek telefonoa hartzen du eta belarrira eramaten du. Antza denez ohetik jaiki berria da Nerea. Aharrausi egiten du, hitz egiten hasi aurretik.

NEREA

Oihane, zer nahi duzu? Eguerdiko hamabiak dira. Gainera, gaur, larunbata da.

3.- PARKEA

Oihane ikusten dugu parkean.

OIHANE

Nerea, Nerea, Maik Jagertuda dator. Gaur gauean, Intxaurrondope aretoan joko du. Nerea, Maik, Maik, uahh! Demasa izango da! Mikeli deituko diot eta sarrerak eroatera joango naiz.

4.- NEREAREN ETXEA

NEREA Nora zoaz? Nor dator? Oihane, hitz egin poliki. Zer izango da demasa?

5.- PARKEA

OIHANE Ai, Nerea, entzun, Maik Jagertudak joko du, gaur gauean. Orain, parkean nago eta antzokira noa sarrerak eroatera. Antzokira. Une honetan Buztinzuri kalerantz noa. Buztinzuri zeharkatuta, Etorbideraino joango naiz zuzen zuen. Handik eskuinera hartuko dut antzokirantz. Beraz zure etxeko ataritik pasako naiz. Nahi al duzu nirekin etorri?

6.- NEREAREN ETXEA

Loaren orratzak ezin kendurik.

NEREA Antzokira? Orain? Et-et-et, ez dakit, hobe lo gehiago egiten badut. Arratsaldean ikusiko dugu elkar.

7.- KALE BAT

Oihane, Nerea eta Mikel, pozez zorutzen, dotore-dotore jantzita, kontzertura doaz.

8.- KALE BAT

Oihane, Nerea eta Mikel, oinez, polikiago, erdi haserre.

MIKEL Zer esango dizuet. Niri ez zait hainbeste gustatu.

NEREA Nik ere gehiago espero nuen, indar handiagoa, martxa azkarragoa, ez dakit, gehiago. Nahikoa hotz utzi nau, antzokiraino joan eta gero.

OIHANE Bai, zerbait falta izan zaio. Konpaktuan demasa da, baina zuzenean, bada, gatzik gabekoa. Hainbeste ordaindu eta gero, *Pssstx*, puxikak bezala, hustu. Ahaztu eta kitto!

NEREA Mendira joan bagina, hobe.

MIKEL Beno, beno, ez atera gauzak bere onetik. Kontzertua ez da izan beste mundukoa baina, bero-bero egon gara behintzat. Mendian sekulako hotza egingo zuen.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com